

Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoerari buruzko azterketa

Ijito Herriak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoera hobetuko duten helburuak eta jardunak planteatu ahal izateko, funtsezkoa da herri horren historia ezagutzea eta gure ijito-errealitatearekin zerikusia duten entitate eta erakundeen adostasuna izango duen egungo egoerari buruzko azterketa bat izatea.

Plan hau Ijito Herriaren egoera hobetzeko aukera ona izan daitekeela ikusten bada ere, ezin dugu ahaztu herri horrek jasandako diskriminazio eta gutxiespenaren historia luzea eta gogorra dela eta historia horrek bere ondorioak dituela eta sortu dituen dinamikak aldatu ahal izateko inplikaturako alde guztien ahalegina, irmotasuna, koherentzia eta denbora behar direla.

Edonola ere, historia horren ondorioz egun dugun egoerari buruzko azterketatik abiatu beharko dugu helburuak eta jardunak proposatzeko. Azterketa horretan, ahal dugun neurrian, fenomenorik garrantzitsuenak identifikatzen eta ulertzen saiatuko gara aurrerago neurriak eta ekintzak proposatzeko. Zer gertatzen ari den eta zergatik gertatzen ari den azaldu nahi dugu, bai eta Ijito Herriaren errealitatearen inguruan egiten denak edo egiten ez denak dituen ondorioak ere.

Azterketa hau egiteko, orain arte dugun informazioaz baliatuko gara, baina ongi dakigu datu gehiago ez edukitzea Planerako muga bat dela eta Ijito Herriaren eta bere baitako segmentu edo sektore berezien errealitateari buruzko ezagutza sistematikoa eta zorrotza hobetzea (hainbat irizpideren arabera) datozen urteotan erantzun beharreko erronketako bat dela.

Hasteko, eta datu zehatz eta fidagarriak ematen dituen azterlanen bat oraindik egiteko dagoen arren, esan dezakegu gure ijitoen komunitatea 14.000 pertsona inguruk osatzen dutela. Komunitate gaztea da eta kideek gero eta denbora luzeagoa ematen dute leku berean bizitzen; ez dira garai batean bezala mugitzen.

Lehen ijito-familiak XV. mendean iritsi ziren gure lurraldera. Nomadismoa zona mugakideetan oinarritu zuten, zona hauen geografia eta lege ezaugarriek askotan jasaten zituzten jazarpenak saihesteko aukera ematen baitzieten. Euskal kulturarekin izandako harremanaren ondorioz, hizkuntz eta kultur mestizaje bat garatu zuten eta ijito-hizkuntzaren eta euskararen arteko hizkera bat sortu zuten: *erromintxela*; ijito edadetu batzuek hitz egiten dute oraindik.

Azpimarratu beharreko beste garai bat XX. mendearen hasierakoa da, urte horietan familia gehiago iritsi baitziren Gaztelatik eta Andaluziatik. Familia horiek eta 60ko hamarkadan, industrializazioaren garaian iritsi zirenek osatzen dute gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ijito herriaren gehiengoa. Ondoko eran banatuta daude:

- 3.000 Araban (Gasteizen gehienak).
- 8.000 Bizkaian (%50 Bilbon eta ia beste %50 Bilbo Handiaren gainerako zatian).
- 3.000 Gipuzkoan (lurralde osoan zehar sakabanatuak).

Plan honetan oro har aipatuko dugu Ijito Herria askotan, baina kontuan izan behar dugu heterogeneotasuna eta aniztasuna ijitoen komunitatearen ezaugarri bereizgarria dela eta heterogeneotasun eta aniztasun hori gero eta handiagoa dela. Ijitoen komunitatea gero eta irekiagoa da eta bere eduki etnikoa neurri batean aldatzen ari da, baina horrek ez du esan nahi bere nortasuna galtzen ari denik. Bestalde, oraindik ongi aztertu gabeko errealitatea izanik ere, kontuan hartu beharko dira ijitoen inmigrazioak izan duen gorakada, ijito horien eta bertakoen arteko harremanak eta, oro har, egun duten egoera.

Gaur egun, ijitoen komunitateak eta kulturak (beste komunitate eta kultura askok bezala) hainbat fenomeno direla-eta (hala nola ekonomiaren globalizazioa, erakunde politikoen berregituraketa, nazioarteko legeen aurrerapenak eta atzerapenak, migrazioak eta kulturartekotasunaren aldarrikapen berritua, informazioaren eta komunikazioaren teknologien iraultza, pozik eta baztertuta dauden sektoreen arteko zuloaren zabaltzea eta familia-egituretan edo balore-eskaletan izandako aldaketa) sortutako gizarte-aldaketek dakartzaten aukerak eta mehatxuak dituzte aurrean. Testuinguru horretan, bereziki aipatu beharra dago Europako Batasuna ijito-komunitate handiak dituzten herrialdeetara zabaltzeak dakarren aukera.

Egungo errealitatea ulertzeko, lau alderdi edo fenomeno handi aipatuko ditugu:

- Ijito Herriaren nortasuna.
- Ijitoen komunitatean agertzen diren gaitasunak.
- Ijitoek herritarren bizi-kalitaterako garrantzitsuak diren baliabide, zerbitzu eta aukerak eskuratzeko eta horietan erabat txertatzeko duten aukera.
- Ijitoen eta gizartea osatzen duten gainerakoen arteko harremanak.

Gure ustez, Ijito Herriaren egoera ulertzeko lau alderdiak ulertu behar dira, bai eta fenomeno horietako bakoitzak gainerakoetan duen eragina ere.

1.1. Ijito Herriaren nortasuna

Ijitoentzat eta beste pertsona eta gizarte-talde batzuentzat Ijito Herriaren bereizgarri diren kultur elementuez ari gara nortasuna aipatzen dugunean. Arestian esan bezala ijitoen artean oso aniztasun eta heterogeneotasun handia badago ere, Ijito Herriaren ezaugarritzat har daitezkeen jarrera eta balore komun batzuk badirela esan daiteke, hala nola:

- Familia ulertzeko modua, familiaren batasuna eta familia barruko laguntza. Kontuan izan behar dugu hainbat belaunaldiz osatutako familia handiak direla (75 kidetik beherako familia bat txikia izango litzateke), funtzio ugari eta garrantzitsuak betetzen dituztela eta beste kultura batzuetakoez bestelako segurtasun eta aginte araei jarraitzen dietela. Adibidez, edadetuek oso zeregin garrantzitsua betetzen dute eta gainerako kideen errespetua jasotzen dute, eta bestalde, haurrak dira, nolabait esatearren, familiaren bizitzaren muina.
- Komunitatearen elkartasuna. Ijito Herriak harreman-sistema eta gizarte-antolamendu berezia du eta antolamendu hori jatorria eta historia ezagutu gabe ulertu ezin den balore eta sinesmenen mundu sinboliko jakin batean, munduaren eta pertsonaren interpretazio jakin batean eta jabetzaren eta agintearen ikuskera propio batean oinarrituta dago.

- Izaera libre eta independentea, asimilazioaren edo inposaketaren aurrean eusten diona. Izan ere, bestela ezinezkoa izango litzateke Ijito Herriak, historian jasan dituen nekeak eta barreiaketa gorabehera, bere kultur ondarea gorde izana ulertzea. Alderdi honi lotuta, gatazkak konpontzeko mugikortasuna erabili izana aipa daiteke.
- Norberaren aberastasunaren aurretik beste balore batzuei (arestian aipatu ditugunei adibidez) lehentasuna emateko gaitasuna, adierazkortasuna eta elkarren arteko bizitzan agertzen duten alaitasuna.

Atal honetan, bereziki aipatu beharra dago ijitoen hizkuntza (*rromanes* izenekoa). Euskal Autonomia Erkidegoko ijito gehienek ezagutzen ez badute ere, hizkuntza bizia da eta European dauden ia 12.000.000 ijitoen %80k hitz egiten dute. Hizkuntza honek izan ditu harremanak gaztelaniarekin eta euskararekin, eta hainbat hitz utzi ditu bi hizkuntza horietan.

Elementu hauek eta beste batzuek Ijito Herriak duen eta gizarte osoari ekarpen gisa ematen ari zaion kultur aberastasun handia osatzen dute. Hori dela-eta, ijitoen komunitatea harro dago bere tradizio eta ohiturez, eta garrantzitsua da ijitoak ez direnak ijitoengana hurbiltzea eta harremanarekin aberastea.

Dena dela, leporatzen zaizkien (ijitoak ez direnek batez ere) eta inola ere nahi ez ditugun irudiak daude. Kasu gehienetan, segur aski, ijito askoren gizarte-bazterkeriako egoerak berak sortutako eta mantendutako estereotipo eta aurreiritzi bidegabeen eta orokortzeko joera dutenen aurrean gaude. Hala ere, pertsona batzuen edo askoren buruan dauden neurrian (komunikabideetan, erakundeetan, auzoetan edo lan-inguruneetan), kontuan hartu behar ditugu, ijito askoren bizitzan benetako ondorioak baitituzte, ijitoek beren gain hartzen dituztenak zein beste pertsona batzuek sinesten dituztenak eta alde baten edo bestearen okerreko portaerak eragiten dituztenak. Hona hemen batzuk:

- Gizarteko elkarbizitza-arauen eta indarrean dauden legeen balioa behar adina baloratzen ez duten pertsonak direlako ideia.

- Ijitoen komunitatean gizonezkoek eta emakumezkoek eskubide berak ez dituztelako susmoa. Egoera hori ijitoen komunitatean nabariagoa da beste komunitate batzuetan baino.
- Ijitoek hezkuntza bera eta ijito-kulturaren berariazkoak ez diren kultur elementuak baloratzen ez dituztelako irudia.
- Ijitoek zoritxarren aurrean beren eskubideen alde egin ordeztasi edo alde egiten dutelako ideia.

Ikuspegi horiek, praktikan, ez dute adierazten ijito-kultura eta etorkizuna duen Ijito Herria badaudela aitortzen denik, aurkakoa baizik. Izan ere, askotan ageriago edo estaliago dauden jarrera arrazisten adierazgarri diren irudi horien agerpena ijito-kopuru handi batek jasaten duen gutxiespen edo bazterkeriaren arrazoi garrantzitsua dela uste dugu. Hori dela-eta, ijitoen eta, batez ere, ijitoak ez direnen buruan identifikazio-ezaugarri horiek aldatzea lortu beharreko helburu sakon eta garrantzitsuenetako bat da.

Nolanahi ere, adierazi beharra dago, beste edozeren gainetik eta beti giza eskubideen sustapena eta indarra bilatuta, ijitoek beren nortasunaren mantentze eta errespeturako eskubidea eta nortasun hori landu eta bultzatzeko erronka dutela. Horrela eginez gero, gizarte osoa aberastuko da.

1.2. Ijitoen komunitatean agertzen diren gaitasunak

Aztertzen ari garen fenomeno-sare honetan kausa eta ondorio gisa kontuan hartu beharreko bigarren alderdia Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen komunitatean neurri handiagoan edo txikiagoan garatuta dauden gaitasunen ingurukoa da (gaitasunak, trebetasunak, sendotasunak, ahalmenak). *Giza kapital* deitu ohi dugun horretaz ari gara hain zuzen ere. Pertsona guztiek (zein kultur edo gizarte taldeetakoak diren kontuan hartu gabe) ditugun gaitasun unibertsal batzuk daudelako ideia dugu abiapuntu: komunikazio eta ekintza gaitasunak eta eraldatzeko, ikasteko edo hobetzeko gaitasunak. Gaitasun horiek era ezberdinean zehazten eta garatzen dira

pertsonak moldatzen direneko kultur jarraibideen, gizarte-elkarreraginen edo bizi-baldintzen arabera.

Ikuspegi horretatik, Ijito Herriak trebetasun edo gaitasun batzuk garatuago dituela esan dezakegu, herri horren barruan aniztasun handia dagoela ahaztu gabe. Sarritan, gaitasun horiek ez dira baloratuenak izan industria-gizartean, lan eta prestakuntza arloan bereziki. Hala ere, beharrezkoak dira eta egungo informazioaren edo ezagutzaren gizarteak eremu guztietan eskatzen ditu, hala nola lan, gizarte, familia edo eguneroko eremuan. Ondokoak dira:

- Egokitzapen, malgutasun, mugikortasun, aldaketa, inprobisazio eta balio-aniztasun gaitasunak. Ijitoak lekuren batera iristen direnean, bertako ohiturak eta hizkuntza ikasten dituzte.
- Zailtasunen aurrean aurrera egitea ahalbidetu dien hobetze-espirtua eta irmotasun handia.
- Dinamismoa jardueran eta komunikazioan, laguntzarako eta elkartasunerako erreakzio eta antolamendu gaitasuna, taldean lan egiten jakitea, sormena, ekimena.
- Ijitoen komunitatearen tradizioan ohikoenak izan diren lanei lotuta dauden eta merkataritzarako dohainak garatzeko balio izan zaizkien gaitasunak. Dohain horien artean ondokoak aipa daitezke: merkatuaren ezagutza, begikotasuna eta diplomazia eta harreman, negoziazio, adostasun edo tratuen ezarpenarekin zerikusia duen guztia.
- Ijitoen komunitateak elkarrizketa erabili izan du elkartasunez eta komunitatean antolatzeke, bere ohitura, tradizio, lege eta baloreak transmititzeko eta familien barruan gertatzen diren egoeren aurrean jokatzeko eta gatazkak konpontzeko.
- Eskulangintzaren eta adierazpen artistikoaren –eta, bereziki, musika-adierazpenaren– eremuko gaitasunak.

Hala ere, informazioaren edo ezagutzaren gizarte horretan garrantzitsuak diren beste gaitasun batzuk askoz neurri txikiagoan garatu dituzte askok, eta horien artean, ijito-kopuru handi batek. Informazioaren (eta, nagusiki, idatzizko informazioaren) hautaketa, prozesatze eta aplikazioari lotuta dauden eta neurri handi batean hezkuntza edo prestakuntza testuinguruetan garatzen diren gaitasunez ari gara batez ere. Gaitasun hauek garatzen ez dituzten pertsonak lan-merkatutik baztertuta geratzen dira eta horrek zuzeneko eragina du gizarte-onarpeneko edo gizarte-bazterkeriako egoeran.

Garbi dago gaitasunen garapena, onarpen edo bazterkeria egoeraren kausa ez ezik, ondorioa ere badela. Arreta jartzen badugu, ijitoek gehien garatzen dituzten gaitasunak ijito-familiaren barruan ikasita lortzen direnak direla ikusiko dugu. Era berean, gutxien garatzen dituztenak gizarte osoan honen modernizazio-prozesuan eskuratzen direnak dira. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan lanbide edo gizarte-rol jakin batzuk dituzten ijitoen erreferenteak gutxi dira oraindik.

Edonola ere, gaitasun batzuen agerpen txikiago hori oztopo bat da ijitoen bizi-kalitaterako eta eskubideen erabilerarako. Hori dela-eta, beren herriaren arazoez jabetu diren ijito askok eta ijitoen komunitatea sustatzeaz kezkatu diren beste pertsona askok hezkuntzaren alde egin dute –zentzu zabalean hartuta– pertsonen gaitasunak garatzeko tresna gisa.

1.3. Ijitoek herritarren bizi-kalitaterako garrantzitsuak diren baliabide, zerbitzu eta aukerak eskuratzeko eta horietan erabat txertatzeko duten aukera

Aipatu nahi dugun hirugarren fenomeno edo fenomeno-multzoa ijitoek gaur egun herritarrei bizi-kalitatea eskaintzen dieten baliabide, zerbitzu eta aukerak eskuratzeko sarritan duten aukera txikiagoa eta horietan txertatzeko are okerragoa da. Horren arrazoiak beti ikusi ezin diren oztopoak eta, funtsean, ingurune askotan agertzen diren estereotipo eta aurreiritziak eta hainbat gizarte-erakundek ijitoei gaitasun batzuk garatzeko eman dizkieten aukera txikiagoak dira. Egia da alderdi hauetan guztietan aurrerapen garrantzitsuak egin direla azken urteotan baina, gaur egun oraindik,

ijito-kopuru esanguratsu batek ez du beste pertsona edo gizarte-talde batzuen neurri berean lortzen baliabide, zerbitzu eta aukera horietarako eskuragarritasuna edo horietan txertatzeko aukera. Ondoren, egungo egoeraren ezaugarriak azalduko ditugu eta, horretarako, alderdi edo egoera positiboak eta negatiboak bereizi eta kasu bakoitzean eragina duten faktoreak aipatuko ditugu.

Aurrerapen gehien izan dituzten alderdien artean, ondokoak aipa ditzakegu:

- Asoziazionismo hasiberria.
- Ijito-elkarteen gero eta lan handiagoa hainbat alorretan (hala nola eskolatzean, prestakuntzan edo elkarbizitzan), esku hartzeko programen eta bitartekotza-programen bitartez.
- Herri-administrazio batzuek ijitoen komunitatearen egoeran eragin positiboa duten programa eta jardun batzuk martxan jartzea.
- Gero eta eskolatzeko erregularragoa eta luzeagoa.
- Bigarren hezkuntzan txertatzea –progresioan baina motel–, urrats hori emateko oraindik beldur handia badago ere.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietarako hurbiltze hasiberria.

Aurrerapen hauek erraztu dituzten faktoreak identifikatzeko garaian, azpimarratu behar dugu azterketa honetan aipatutako lehen bi fenomenoei dagokienez egindako ahaleginei eta lortutako aurrerapenei esker (hala nola ijitoen irudiaren eta ijitoek norberaz duten irudiaren hobekuntzari eta gaitasunen gehitzeari) ijito askok hobekuntzak izan dituztela baliabide, zerbitzu eta aukerak eskuratzeko eta horietan txertatzeko aukeran. Zenbaitetan, eskuratze edo txertatze hori ijitoei sarbidea zailtzen edo oztopatzen zieten baldintza desagokiak edo xedapen diskriminatzaileak kendu direlako lortu da. Beste zenbait kasutan, baldintza horiek kendu gabe daude oraindik.

Beste batzuetan, egokitzapenak edo eraldaketak egin dira edota ijitoak baliabide eta zerbitzu horietan txertatzea erraztu duten jardun proaktiboak egin dituzte. Beste

batzuetan berriz, laguntza eta ekintza positiboko neurriek erraztu dute baliabide eta zerbitzuak eskuratzeko eta horietan txertatzeko aukera (zenbaitetan neurri hauek nahi zen ondorioa eman ez badute edota ondorio kaltegarriak izan badituzte ere).

Alderdi edo egoera negatiboen artean, ondokoak aipa ditzakegu:

- Pilaketa, egoera txarreko etxebizitza eta txabolismo ugari; zenbait kasutan gizarte-gatazka kasuei lotuta daude.
- Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren eragin handia ijito askorengan.
- Ijito-kopuru txikia hainbat lanpostu-motatan; ijito gehienak lan tradizionaletan aritzen dira (salmenta ibiltarian edo txatarrarekin adibidez).
- Partaidetza txikia, oraindik, ijito-elkarteetan, eta ia partaidetzarik eza ijitoenak ez direnetan (ikasleen gurasoen elkarteetan edo auzo-elkarteetan adibidez). Ijitoek parte hartzen duten elkarteen sareen arteko loturarik eza. Oro har, gizarteko sektore zabalekiko harremanik eza. Asoziazionismo zibilaren garapen txikia erlijiosoak duen indarraren aldean. Autolaguntzarako familia-taldeen hedapen urria.
- Gehienak ghetto bihurtzeko prozesuan dauden eskoletan eskolatzen dira. Eskolatzea ez dago hizkuntz ereduaren artean banatuta (gehienak A eredukoak dira) eta, oro har, gutxieneko curriculum-planteamenduak ditu. Horrek zailtasunak jartzen ditu hezkuntza-sisteman eta gizartean oro har integrazio erreala lortzeko.
- Hezkuntza-etapak arrakastaz gainditzen dituzten ikasleen portzentaje txikia.
- Asistentzia irregularraren eta eskola-absentismoaren eragin handia, bigarren hezkuntzan bereziki.
- Eskolen eta ijito-familien arteko harreman urria.
- Zailtasun handiak laguntza ekonomikoa beharrezkoa ez izateko eta, ondorioz, prestazio ekonomikoak (oinarrizko errenta eta gizarte-larrialdietarako laguntzak funtsean) gutxiago erabiltzeko gizarteratze eta laneratze prozesuak planteatzean.

Sarritan ijitoen edo hauen komunitatearen ezaugarrien ondorioztat hartu ohi diren egoera horiek, egia esan, gizarte oztopo edo diskriminazioen emaitza dira, ondokoena besteak beste:

- Ijitoekin lan egiten duten profesional gehienek, eta herritarrek oro har, ez dute ijito-kultura ezagutzen eta ijitoei lotutako aurreiritzi eta estereotipo ugari daude, negatiboak gehienak.
- Pertsona jakin batzuen portaera negatiboak oro har ijito guztienak direlako ustea.
- Profesionalen estamentu askok, eta herritarrek oro har, ez dituzte ezagutzen ijito-herriaren benetako egoera, ijito-familiei aurrera egitea zailtzen dieten dinamikak edo oztopoak eta, oro har, egungo gizartean ezberdintasunen gorakadan eragina duten dinamikak, eta ez dute horiei buruzko gogoeta egiten. Ezjakintasun hori dela-eta, arrazoiak faktore indibidualetan edo familia-faktoreetan kokatu ohi dira (interesik eza edo ustezko kultur urritasunak adibidez) eta, ondorioz, alor bakoitzean dauden oztopoek berdin jarraitzen dute.
- Hainbat eremutan ijitoen diskriminazioa eragiten duten aurreiritziak: etxebizitza alokatu nahi ez izatea, kontratatu nahi ez izatea eta ikastetxe jakin batzuetan ijitoak ez diren ikasleen kopuruak behera egitea ikastetxean ijitoak izanik irakaskuntzaren kalitatea murriztuko omen dela eta gatazkak ugarituko omen direla-eta.
- Egoerak egiaztatzeko prozeduren irekiera urria eta gizarte, justizia, etxebizitza eta abarren arloko zerbitzu edo prestazio jakin batzuk eskuratzeko araudi zorrotzak. Ondorioz, araudi orokorrak topo egiten du ijitoen komunitatearen lan eta familia ereduekin (adibidez, prestazio jakin batzuk eskuratzeko nahitaez banantze-demanda bat aurkeztu edo bikotekidea tratu txarreatik salatu beharra).
- Lan tradizionalen errentagarritasunaren murrizketa eta lan horiek betetzeko eragozpenen areagotze progresiboa (salmenta ibiltaria eta txatar, paper eta kartoiaren bilketa). Hori pobrezia eta gizarte-bazterkeriara eramaten ari da familia-kopuru handi bat.

- Itxaropen txikiak ikasteko aukerei edo interesari dagokienez. Horrek eragin handia du norberaren eta familien itxaropenetan eta eskolarekiko eta, oro har, prestakuntzarekiko jarreretan.
- Ijito-kulturaren eta ijitoen agerpenik eza prestakuntza-prozesuen etapetan.
- Laneratzeko benetako aukerak ematen dituzten prestakuntza-prozesuen eskaintza urria eta, ondorioz, partaidetza urria gizarteratze eta laneratzeko prozesuetan eta prestakuntza-prozesuetan. Oro har, ijito helduen agerpen txikia dauden prestakuntza-mailetan.
- Gizarte-zerbitzuen baliabide eta babes gama mugatua, eta kasu askotan prestazio ekonomikoak baino ez dira jasotzen. Etxez etxeko laguntza edo familiaren esku-hartzea sendotu eta zabaldu beharra, familia zabalak duen ahalmena behar bezala aitortuta.
- Ijito-familiei dauden programa eta baliabideei buruzko informazioa helarazteko bide egoki eta askotarikorik eza. Horrek dakarren ezjakintasunaren ondorioz, gure gizartean dauden prestazio eta zerbitzu asko aprobetxatu gabe geratzen dira.
- Osasun-zerbitzuen mailen erabilera txikia: lehen mailako arretaren aprobetxamendu urria, prebentzio-programen inguruko ezjakintasuna eta larrialdi-zerbitzua gehiegitan erabiltzeko joera.
- Arazoak zerbitzu jakin batzuk erabili edo jasotzeko arauetan (ospitaleratzean adibidez), ijito-kulturari dagokionez.
- Publikoa ez den etxebizitza bat alokairuan hartzea, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzea edo udal jakin batzuetan erroldatzea (legeak ezartzen duena kontuan hartuta etxebizitza-egoera edozein izanik ere) galarazten duten baldintzak.
- Kontsumo-gizartearen eragin handia, osasun, elikadura eta kontsumo azturetan zuzeneko ondorioak dituena. Aisia eta kirol jardueretarako aukera mugatuak.

Zenbaitetan, identifikatu, aztertu eta aurre egin beharreko gatazka-egoera handiagoak edo txikiagoak ager daitezke azaldu ditugun alderdi edo gaietako (edo eremu edo inguruneetako) bakoitzean. Bestalde, arazoa katearen zein mailatan gertatzen den identifikatu behar da kasu bakoitzean: informazioan, komunikazioan, harreran, jarraipenean eta abar.

Azkenik, arestian esan dugu baliabide, zerbitzu eta aukera horiek eskuratzeko edo horietan txertatzeko oztopoen ondorioz ijitoen bizi-kalitatea okerragoa dela, baina horrez gain, azpimarratu beharra dago gure datuen arabera *bizi-kantitatea* ere okerragoa dela. Horrela beraz, Ijito Herria osatzen duten haurren, gizonezkoen eta emakumezkoen bizi-itxaropena herritarren batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da.

1.4. Ijitoen eta gizartea osatzen duten gainerakoek arteko harremanak

Aipatu nahi dugun laugarren eta azken fenomenoak ijitoen eta ijitoak ez direnen arteko harremanak, elkarbizitza, partaidetza eta lotura da (aniztasuna eta ezberdintasuna onartuta eta baloratuta). Fenomeno honen garrantzia kontuan hartuta, bereziki zaindu beharko ditugu Plan honen eta EAEko Gizarteratze Planaren arteko adostasuna, integrazioa eta sinergiak. Era berean, adi egon beharko dugu eta ez dugu ezarriko ijitoen komunitateari berriaz lotutako neurriak herritar guztientzat dauden neurri orokorrak nahikoak eta egokiak badira.

Nolanahi ere, ez dugu asimilaziorik nahi, barne hartzea baizik. Asimilazioak Ijito Herria bereizten duten kultur ezaugarriak galtzea eta, azken batean, ijitoen komunitatea bera desagertzea dakar eta, ondorioz, gizartearen kultur eta giza mailan pobretzea. Gizarte-mailan barne hartzeak berriz, aurreko idatz-zatian aipatu dugun baliabide, zerbitzu eta aukerak eskuratu eta horietan erabat txertatzea eskatzen du, baina are urrutirago doa: gizarte ireki, kohesiodun, zuzen eta partaidetza bilatzen duen bateko gizarte-lotura eta giza eskubide guztiak biltzen ditu.

Ijitoak eta, azken batean, ijitoen komunitatea gizartean ez barne hartzea, orain arte azaldutakoaren guztiaren ondorioa ez ezik, arrazoia ere bada neurri batean. Izan ere,

tratu, harreman, ezagutza eta topaketarik eza estereotipoen eta aurreiritzien eta, horiekin batera, hutsegite eta gatazken, gutxiespenaren eta bazterkeriaren haztegia da.

Barne hartzeaz eta baztertzeaz hitz egiten dugunean, ulertu behar dugu prozesu konplexuez ari garela eta bizitzaren une jakin batean edonor eraginpean har dezaketela modu batean edo bestean. Gizarte-bazterkeriako eta gizartean barne hartzeko prozesuek ijitoengan nolako eragina duten ulertzeko, ondokoak bereizi behar ditugu:

- Ijito-izaeragatik sortutako zuzeneko diskriminazioko prozesuak. Zuzeneko diskriminazioa pertsona bat ijitoa izateagatik gaizki tratatzen dutenean sortzen da, ijitoa ez den norbait zirkunstantzia beretan jasoko lukeen tratuarekin konparatuta).
- Pertsona batzuk ijito izateari zeharka lotutako bazterkeria-prozesuak. Funtsean neutral gisa planteatzen den xedapen, irizpide edo praktika batek talde baten zati handi bat talde-ezaugarriengatik desabantaila-egoeran uzten duenean gertatzen da zeharkako diskriminazioa.

Nolanahi ere, neurri edo maila handiagoan edo txikiagoan bazterkeria-prozesuetan sartuta dauden ijitoen portzentajea oso handia da. Kasu askotan ez dira bazterkeria larriko egoerak; zerikusi handiagoa dute gizarte-urruntasunarekin, ikusezin bihurtzeko gonbitearekin, gizarte bereko osagai ez sentitzearekin edo espazio edo ingurune jakin batzuk propiotzat ez hartzearekin. Azken batean, dinamika horren ondorioz hainbat ijitok izaera hori ezkututzen dute edo jasotako tratu bidegabearen aurrean etsi egiten dute, gaitzespenaren beldur.

Bestalde, beste hainbat fenomeno gertatzen dira nahi baino askoz gehiagotan: bazterkeria-egoeran dauden ijitoak leku eta ingurune jakin batzuetan pilatzea, erreferentziazko komunitatearekiko lotura galtzea eta, zenbaitetan, familia nuklearra desegituratzea. Bazterkeriari lotutako prozesu eta egoera horiek guztiak kontuan hartu beharko dira kasu bakoitzean egokia den erantzuna egituratzeko.